

Ongi etorri zure kobazulora

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Eguneroko errutinan bueltaka, tarteka inspirazio uneak izaten ditut eta gogoetan hasten naiz, nora goazen eta halakoak pentsatzen: hazi, ikasketak bukatu, lanean hasi, familia osatu, ala ez... Eta gero iritsi ezinda, umeeekin egoteko denborarik gabe, eta bikotekidearekin, eta guraso eta anai-arrebeekin, eta lagunekin, eta gure buruarekin. Lan ordainduaren sistemak egunaren puskarik handiena jaten du, baina hortik zenbat da produktiboa? Ordu guttiagotan ez al genuke berdina ekoitziko? Edo hobeki? Hartzen al dugu

astirik gure ametsetan pentsatzeko, zer egin nahi dugun galdetzeko? Errutina ongi dago, segurtasuna ematen du, osasuna zaintzen ere laguntzen du, baina ez ditut ametsak ahantzi nahi, ez dut egunerokotasunak jatea nahi. Zoriontasuna neurri handi batean norbere barrenean dagoela ez da topiko bat. Eta nire barrena aldakorra da. Batzuetan ongi sentitzen naiz, euforiko ere bai, eta bertzetan ez, egoera berean. Bien arteko alanbre gainean orekari eutsi nahian ibiltzen naiz, eroriz eta altxatuz. Norberak du bere kobazuloa, eta ba-

rrura gonbidatu nahi zaituztet. Horretarako ariketa on bat izaten ahal da denboraren taula osatzea. Nik behin egin dut eta ez zitzaidan erraza egin. Ezkerreko zutabea, goitik behera, jarduerak jarri behar dira: enplegua, etxeko lanak, militantzia, bizitza soziala, autozaintza eta bakarrik egiten dugun aisialdia, bertzeen zaintzak, formazioa, atsedena eta loa. Eta goian, ezker-eskuin, asteko egunak. Lauki bakoitzean jarduera bakoitzari zenbat ordu eskaintzen dizkiogun idatziz deskubrimendu batzuk egin nituen nik behintzat. •

Sutara!

**Xabier Mikel
Errekondo**

Gizateriarengan agintzen omen zuten jainko(sa) ugari eman digute mitologia ezberdinek. Oraindik ere jende askok sinesten du jainko(s)en eraginaz. Nik nahiago dut eguzkia, ilargia eta lurra- ren arteko harreman zientifikoa edo haizea, ura eta suak ingurunean eta gizakiongan duten eragina aintzat hartu. Gaur, San Joan bezperako gaueko suak harrapatu egin nau eta su garbitzailearen miresle bihurtu. So naiz geratu eta gar gorri-laranja bizi artetik txinparta goria jauzi zait bekokira eta hurbileko miserien flashek, filminak

lez, inguratu egin naute bira etengabe- an. Zorabioan, guztiona dena beretzat hartzetik jainkoak bezala bizi diren as- ko eta asko sutara jaurtitzeko bultzada sentitu dut, nahiz guztiz desagerrarazi ez, errauts bihurtzeko. Orduan ikusi dut argi inkisizioaren sua helburuz eta garaiaz erratu egin zela, pizturik behar zukeela egungo piztiak errausteko... eta bat-batean, tio- biboan lez, izen lodikote hainbat hasi zaizkit buruan burrunbaka. Harrokeriaren jainko Rafael Hernan- do, listu pozoitsuaz irainduz gozatzen duena, sutara.

Lapurretaren jainko Mariano Raxoi: herritarrei etxe, pentsio, soldata eta energia kostuak lapurtu eta banku eta enpresa lobby-entzat hartu dituen, baita PPrentzat eta patrikarako arpila- tu duena, besterik gabe langile arrunt izatera itzuli? Garbitu ardurak, sutara. Justiziaren jainkoa, peluka lizundu- dun Espainiako AntiJustizia hau, hats okagarria ahulenen aurpegira listuka etengabe mehatxu egiten duena Iñaki Urdangarin, alias *Pablo Escobar* kotoi artean zaintzen duen bitartean, suta- ra! •